

# 13/23

*irizpena*

EAEko Turismo-gidarien jardueraren

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2023ko urriaren 27a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 13/23

---

## I.- AURREKARIAK

---

2023ko irailaren 14an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren idazkia sartu zen. Horren bidez, txostena eskatzen zuen *EAEko Turismo-gidarien jardueraren Dekretu-proiektuari* buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak, 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontsultatzen zaigun arauaren helburua da turismo-gidarien jarduera arautzea, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 64.1 artikulua aurrez ikusten dituen baldintzetan.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzaie, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraikiz.

Garapen Ekonomikorako Batzordea 2023ko urriaren 19an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen osoko bilkurak lan dezan. Bertan urriaren 27an gehiengoz onartu da.

## II.- EDUKIA

---

*EAEko turismo-gidarien jardueraren Dekretu-proiektuak* honako hauek ditu: zioen azalpena, bost kapitulu 22 artikulutan banatuta, xedapen iragankor eta gehigarri bana eta hiru azken xedapen.

Lehenik eta behin, zioen azalpenak aipatzen du Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 64.1 artikulua turismo-gidarien jarduera honako modu honetan definitzen duela: «*jarduera eta zerbitzu turistikoaren erabiltzaileentzat informazio- eta interpretazio-lana egiten dute Euskadiko interes kultureko ondasun eta gainerako baliabide turistikoaren ondare historiko, natural eta gastronomikoari buruz. Zerbitzu horiek ohikotasunez, profesionaltasunez eta prezio bidez ematen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste edozein hizkuntzatan*».

Turismoaren Legeak ezartzen du turismo-gidarien jarduera aske eman daitekeela, eta zehazten du zirkulazio askeko bide edo espazio publikoak turismo-gidarien jardueraren zerbitzuak aske emateko direla salbu eta euskal kultura-ondarea osatzen duten kategorietako baten barruko ondasuntzat katalogaturiko elementuen barruan egiten bada, bat etorritz Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak edo lege horren ordezkoko araudiak ezarritakoarekin.

Espazio horietan turismo-gidarien jarduera garatzeko Turismoaren Legeak gaikuntza espezifikoak izateko eskatzen du, eta, bide horretatik, dekretu honen helburua da agindu hori betetzea.

Hasteko, legea behar bezala aplikatze aldera, ezinbestekoa da oinarrizko zenbait alderdi zehaztea. Batetik, «*ohikotasunez eta ordainduta*» aritzetzat zer jotzen den mugatu behar da, horrek zehaztuko baitu turismo-gidarien zerbitzuak lanbidearen jardunean ematen diren ala ez. Dekretuak lanbide-jardueraren aurrean gauden definitzeko bi elementurik argienak hautatzen ditu: urteko jarduketekopurua edo zerbitzuak ematen direnean publikotasunik eza.

Dekretuaren eragina Turismoaren Legearen 64.1 artikuluko zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztietara zabaltzen da, alde batera utzita zer espazio-eremutan ematen diren. Legezko eskemari jarraikiz, proiektuak ez du Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzera behartzen; inskripzioa nahitaezkoa da gaituta dauden pertsonentzat, baina pertsonak borondatez inskribatu daitezke, baldin eta gaikuntza behar duten espazio-eremutik kanpo jarduten badute. Xede

horrez, nahikoa da jakinarazpen bat bidaltzea.

Dekretuak zehatz-mehatz arautzen ditu euskal kultura-ondarea osatzen duten kategorietako baten barruko ondasuntzat katalogaturiko elementuen barruan zerbitzuak emateko gaikuntzak. Dena den, erreserbatutako eremu geografikotik kanpo turismo-gidariaren lanbideari dagozkion berezko zerbitzuak ematen dituztenetara ere zabaltzen da. Hala, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legezko interesak babestu eta defendatzen direla bermatze aldera, turismo-gidari orok bete eta errespetatu behar dituen eskubideak eta betebeharrak zerrendatzen dira.

Bestalde, Turismoaren Legearen 64.3 artikuluari jarraikiz, gaikuntza eskuratzeko gaitasuna egiaztatzen duten titulazio- eta esperientzia-eskakizunak ezartzen dira. Jardueran hasi eta aritzeko zuzeneko gaikuntza-sistema bat dago, eta arloari eta hizkuntzari buruz ezagutza nahiz gaitasun akademikoak eta profesionalak ziurtatzean oinarritzen da.

Horrez gain, dekretuak aitortzen du beste autonomia erkidego batean turismo-gidari gisa gaituta daudenek behin-behinekoz Euskadin jarduteko eskubidea dutela, eskakizun bakarra aurretiko adierazpena aurkeztea izanda. Ildo horretatik, dekretuak berak behin-behineko jarduna honela definitzen du: denboran iraupen zehatza gainditzen ez duenak, hain zuzen, hamabi hilabeteetan zehar hogeita hamar egun ondoz ondo edo hirurogei egun eten. Modu berean, dekretuak badu erantzuna turismo-gidariaren zerbitzuak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan finkatuta dauden pertsonak ematen dituztenerako, eta Europako aplikazioko araudian ezartzen denari erreparatzen zaio.

---

Deskribatutako helburuak betetzeko, aipatu den bezala, dekretua bost kapitulutan egituratzen da. **Xedapen orokorren I. kapituluak** dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua zehazten ditu, administrazioarekin harremana ezinbestez bitarteko elektronikoen bidez izan behar dela adierazteaz gain.

**II. kapituluko 1.** atalak lanbide-gaikuntzako eskakizunak eta gaitze-prozedura arautzen ditu; bien bitartean, 2. atalak hizkuntza-gaikuntzak egiaztatzearen gaia du hizpide.

II. kapituluko 3. atala beste autonomia erkidego batzuetan gaitutako gidarien jarduera arautzen du. Azaldutakoaren ildotik, behin-behinekoz aritzea onartzen da, baldin eta lehenago aurretiko adierazpena aurkezten bada. Jardueran etengabe aritzeko, ordea, ezinbestez gaikuntza egokia eskuratu beharko da.

II. kapituluko 4. atalak Europar Batasunean lanbide-prestakuntzak onartzea aurrez ikusten du, eta, azkenik, 5. atalean gaikuntzek ondorerik ez duten kasuak jorratzen dira, bai titularrak uko egin diolako edo hil delako, bai beste autonomia erkidego ala Europar Batasuneko estatu kide batzuetako pertsonak aurkeztutako adierazpenen ondorioz behin-behinekoz jarduteko epea igaro delako, bai eta zehapen-prozeduraren edo bestelako legezko zio bat dela bide administrazio-ebazpenaren bidez hala erabaki delako ere.

**III. kapituluak** Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 24. artikulua ezartzen duenaren arabera, gaitutako gidariak erregistroan ofizios inskribatzea arautzen du. Jakinarazpenaren bitartez borondatez eskatzen duten turismo-gidariena ere zehazten da. Gainera, jardueran turismo-gidariak erakutsi behar duten ziurtapen pertsonala arautzen da.

**IV. kapituluak** turismo-gidarien eskubideak eta betekizunak ezartzen ditu, bai turismo-gidariaren lanbidean aritzen diren pertsona guztientzako orokorrak, bai gaikuntza lortu dutenentzako espezifikoak. Hala, zerbitzuaren kalitatea bermatzera, kultura-ondarearen elementuak babestera eta erabiltzaileek eskubideak defendatzera bideratutako araubide juridikoa antolatzen da.

Turismo-diziplinari buruzko **V. kapituluak** turismo-gidarien jarduera turismo-ikuskapenari dagokion jarduketaren baitan jartzen du. Gainera, turismo-gidarien jardueran aritzean egin daitezkeen arau-hausteen tipifikazioa zehazten du, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legeak xedatutakoaren esparruan.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legeak zioen azalpenean gogorarazten duenaren ildotik, berezko kultura-balioez gain, irabazi ekonomiko garrantzitsuak sortzen dituen zerbitzuen sektoreko jarduera bat da, beraz, lehen mailako baliabide bat da, etengabe aldatu dinamizatzen dena<sup>1</sup>.

Lege horren 64. artikuluan turismo-gidarien jardueran hastea eta aritzea lantzen da. Gaikuntza egokia eskatzen da, eta adierazten da zerbitzuko jardueraren xehetasuna arauz garatu beharko dela.

Araua betez, “*EAEko turismo-gidarien jardueraren Dekretu-proiektua*” aurkezten zaigu gure iritzia emate aldera. EAEko turismo-gidarien jarduera arautze du, prestakuntza espezifiko eta etengabea duen profesional gisa, turismo-gidari gaituaren irudia sustatzeko. Xedea da kalitatezko informazio- eta interpretazio-zerbitzuak bermatzea.

Euskal kultura-ondarearen elementuak eta Euskadiko gainerako turismo-baliabideak, bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak ere behar bezala babesten direla bermatu behar da. Helburu horiekin ados gaude; hortaz, baliotzapen positiboa egiten dugu.

Arauren funtsaren aldekoak gara: turismo-gidarien zerbitzuak kalitatez emateak zuzenean eragiten du jomugatik bisitariak daramaten irudian eta gogobetetasunean. Hala, nahitaezkoak dira profesional adituak, prestakuntza ona eta ezagutza zabalak, zehatzak eta eguneratuak dituztenak, euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasun katalogatuen elementuen barruan berri emateko.

Positiboa iruditzen zaigu oinarrizko alderdiak arautzeko orduan arauak kontuan hartzea zerbitzua non ematen den. Batetik, barruan eta kanpoan turismo-gidariaren lanbideko zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek eskubideak eta betekizunak ageri dira (18. eta 19. artikulua); bestetik, zorrotzago arautzen da gure kultura-ondareko elementuen barrualdean gidarien jarduera, eta, horretarako, eskatutako ziurtagiria behar da.

Hala, gidari gaituak pertsonalki identifikatzen dituen ziurtagiria sortzen da. Agiri ofiziala da, eta ezin dira lanbidean aritzeko pertsonak ordeztu. Ziurtagiria eskuratzeko, zenbait baldintza bete beharko dira titulazioaren eta esperientziaren arloan gaikuntzak bermatze aldera.

Turismo-gidarien jardueran hasteko eta aritzeko gaiaren eta hizkuntzaren ezagutza eta gaitasunei buruzko ziurtagiria behar denez, zalantzarik gabe, zerbitzua kalitate handiagoaz emango da, eta oso egokitzat jotzen dugu.

Azkenik, gure ustez positiboa da arautzen diren gaitze-prozeduretan isiltasun positiboa sartzea (7.5,

---

<sup>1</sup> Izapidetu zenean, arau honen aurreproiektuari buruzko irizpena egin zuen Batzordeak ([17/15 Irizpena, irailaren 25ekoa](#)).

9.5 eta 13.5 artikulua).

#### **IV.- ONDORIOA**

---

Euskadiko EGABren iritziz egokia da *EAEko turismo-gidarien jardueraren Dekretu-proiektua* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetan aintzat hartuta

Bilbon, 2023ko urriaren 27a

O.E. Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte